



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA
2021eko abenduaren 14an.

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo(EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

IDAZKARIA: Leire Ucin Soraluze

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERRENDA

Alkateak proposatzen du 9. 10. Eta 11. puntuei urgentziazko izaera ematea bozkan jarri daitezen; hauek dira puntu horiek:

9. Interes publiko goreneko erregulazio berriari buruzko mozioa onartzea, hala badagokio.

10.2022. urterako taxi zerbitzuaren tarifak onartzea, hala badagokio.

11. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatera atxikitzea onartzea, hala badagokio.

1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Aurreko aktari buruz inork ez du ezer esateko, beraz **ONARTUTZAT** ematen da.

2. Dekretuen berri ematea.



Idiazabalgo Udala

Inork ez du ezer komentatzeo Dekretuei buruz.

3- 2022. Urterako aurrekontua onartzea, hala badagokio.

Alkateak 2022. Urterako aurrekontua aurkezten du.

SARREREN AURREKONTUA			PRESUPUESTO DE INGRESOS		
Kapitulua	Izena	Euro	Capítulo	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	903.278	1	Impuestos directos	903.278
2	Zeharkako zergak	90.000	2	Impuestos indirectos	90.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	592.395	3	Tasas y otros ingresos	592.395
4	Transferentzia arruntak	2.278.881	4	Transferencias corrientes	2.278.881
5	Ondare sarrerak	10.000	5	Ingresos patrimoniales	10.000
6	Inbertsio errealen besterentzea	0	6	Enajenación de inversiones reales	0
7	Kapital transferentziak	144.000	7	Transferencias de capital	144.000
9	Finantza pasiboak	0	9	Pasivos financieros	0
	Guztira	4.018.554		Total	4.018.554

GASTUEN AURREKONTUA			PRESUPUESTO DE GASTOS		
Kapitulua	Izena	Euro	Capítulo	Denominación	Euros
1	Pertsonal arloko gastuak	1.169.157,03	1	Gastos de personal	1.169.157,03
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuerosketak	1.972.723,84	2	Compra de bienes corrientes y servicios	1.972.723,84
3	Finantza gastuak	8.020	3	Gastos financieros	8.020
4	Transferentzia arruntak	567.119,03	4	Transferencias corrientes	567.119,03
6	Inbertsio errealak	231.000	6	Inversiones reales	231.000
9	Finantza pasiboak	70.000	9	Pasivos financieros	70.000
	Guztira	4.018.019,9		Guztira	4.018.019,9



Idiazabalgo Udala

Puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Aldeko bozka: 6 Iñaki Alberdi, Iñaki Arriaran, Aloña Barandiaran, Ioana Prados , Eunate Elio, Aritz Ugarte.

Kontrako bozka: 3 Ioritz Imaz, Andoni Gomez, Iker Zabaleta

Abstentzioa: 0

Ondorioz, **2022. Urterako aurrekontua ONARTZEN** da.

4. Lanpostuen balorazio prozesuaren ondorioz, Idiazabalgo Udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, hala badagokio.

Txostena

Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa aldatzea.

AURREKARIAK

Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa aldatzeko beharra dago honako arrazoi honengatik:

2019ko apirilean, Idiazabalgo Udalak Lanpostuen Balorazio prozesua hasi zuen, eta horretarako LKS-rekin sinatu zuen kontratua. Prozesu horren emaitza 2021eko ekainean aurkeztu zuen aholkularitza enpresa horrek, eta ELA sindikatuko ordezkariarekin eta langileekin egindako hainbat bilera egin ondoren , behin-behineko ordainsarien proposamena aurkezten da.

Balorazio prozesu horren ondoren udal langileen ordainsariak aldatu egingo dira, eta hori onartzeko , Idiazabalgo Udaleko lanpostuen zerrendaren aldaketa izapidetu behar da, hain zuzen ere.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa. Eskumena

Erabakia hartzeko eskumena Osoko Bilkurak du gehiengo soilez, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22. Artikuluan xedatutakoaren arabea.

Bigarrena Araubidea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legea. Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 126. Artikuluak eta hurrengoak Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: 16 atalak Langile Publikoen Estatutu Orokorrari buruzko legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 legegintzazko Errege Dekretua.

Gaiaren azterketa



Idiazabalgo Udala

Langile Publikoen Estatutu Orokorrari buruzko legearen Testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 legegintzazko Errege Dekretuaren 4. Artikuluan xedatutakoaren arabera, "herri administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa trasnak erabilita egituratuko dute beraien antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak hornitzeko sistemak, eta ordainsari osagarriak. Tresna horiek publikoak izango dira".

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruz aipatu den lge hori Euskal Autonomi Erkidegoak garatzen ez duen bitartean, indarrean egongo da behin-behinean Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea, eta horren arabera, lanpostu-zerrendak dira Euskal Autonomía Erkidegoko herri Administrazioek beren barne-egiturak arrazionalizatzeko eta antolatzeko, langile beharrak erabakitzeke, lanean jarduteko eskatzen diren baldintzak zehazteko, eta haietako bakoitza sailkatzeko erabiltzen dituzten tresnak.

1.	Secr/Interv Idazkari-kontu	Al	1	B/S	26	26.193,38	10%	Secr.	GN/HN	IK/SI	A	4	27-02-92	Grado o equivalente/ Grado edo baliokidea	C
2.	Administ. Adm. General/Administr. Orokorreko administraria		1	A/N	18	17.785,63		Secr	AO/AG	AA/A	C	3	27-02-92	Bach, Técnico o equivalente/ Batxil tekniko edo baliokidea	C
				C1											
3.	Administ. Adm. General/Administr. Orokorreko administraria		1	A/N	18	17.785,63		Secr	AO/AG	AA/A	C	3	30-06-93	Bach, Técnico o equivalente/ Batxil tekniko edo baliokidea	C
				C1											
4.	Administ. Adm. General/Administr. Orokorreko administraria	Cl	1	A/N	18	17.785,63		Secr	AO/AG	AA/A	C	3	01-08-01	Bach, Técnico o equivalente/ Batxil tekniko edo baliokidea	C
5.	Peñon servicios múltiples/ zeregin anitzeko langilea	C2	1	A/N	17	19.725,88		Brig	AB/AE	SE/ZB	L	1	92-12-31	ESO, equivalenten/ DB hedo baliokidea	C
6.	Agente serv policia loc		1		17	18.432,38	10%	Idaz.	AB/AE	SE/ZB	CC	2	28-02-91	Bach, Técnico o equivalente/ Batxil tekniko edo baliokidea	C
				C1											
				A/N									4 20		
7.	Técnico-dinamiz. Cultur/ kultur Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • teknika dinamizatzailea	A2	1	A/N	20	20.372,63	8%	Kultura	AB/AE	AT/ST	A	3	12- 05- 01	Diplom, grado/ Diplomatua, gradua	C



Idiazabalgo Udala

LANGILE LABORALAK

1	Limpiador/a/ Garbitzailea	E	1	11	16.168,75	Brig.	AE/AB	SE/ZB	2	31-12-94	Certif escolaridad/Eskolatze ziurtagiri	C
2	Limpiador/a/ Garbitzailea	E	1	11	16.168,75	Brig	AE/AB	SE/ZB	1	28-02-91	Certif escolaridad/Eskolatze ziurtagiri	C
3	Limpiador/a/ Garbitzailea	E	1	11	16.168,75	Brig	AE/AB	SE/ZB	1		Certif escolaridad/Eskolatze ziurtagiri	C
4	Limpiador/a/ Garbitzailea	E	1	11	16.168,75	Brig	AE/AB	SE/ZB	1		Certif escolaridad/Eskolatze ziurtagiri	C
5	Limpiador/a/ Garbitzailea	E	1	11	16.168,75	Brig	AE/AB	SE/ZB	1		Certif escolaridad/Eskolatze ziurtagiri	C
6	Limpiador/a/ Garbitzailea	E	1	11	16.168,75	Brig	AE/AB	SE/ZB	1		Certif escolaridad/Eskolatze ziurtagiri	C
7	Trabajador social (1)/ Gizarte langilea	A2	1	20	20.372,63	Serv.soc/ zerbitzu sozialak	AE/AB	T	3	30-06-93	Grado o diplomatua trabajo social	C
8	Oficial eletricista	C1	1	17	19.402,50	Brig 5%	AE/AB	SE/ZB	2	24-09-20	Bach, Técnico o equivalente/ Batxil tekniko edo baliokidea	C
9	Resp. Biblioteca (1)	C2	1	18	17.138,88	Cultura/ kultura	AE/AB	AA/AB	2	30-06-93	ESO, equivalenten	C

(1)Estos puestos de trabajo son a extinguir / Lanpostu hauek iraungitzear daude

PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostuaren izena	Lanp. Kop.	T.6/89 Egoera	Denominación de la plaza	N plazas	Subgrup O art 43 L6/89	Situación	
NAZIONALEKO GAIKUNTZAKO ESKALA Idazkarita-kontuhartzaileko azpieskala Idazkari-kontuhartzailea	1	A1	H	ESCALA DE HABILITACIÓN NACIONAL Subescala de Secretaría Secretario/a-Interventor/a	1	A1	V
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA Administraria azpieskala Admin. Orokorreko Administraria	2	C1	J	ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Subescala Administrativa Administraivo Adm. General	2	C1	P
Admin. Orokorreko Administraria	1	C1	H(1)	Administ. Admon. General	1	C1	V(1)
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA Zerbitzu Berezietako azpieskala				ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Subescala de Servicios Especiales			
Klasea. Ofizioetako pertsonala Zeregin anitzetako langilea	1	C2	J	Clase: personal de Oficios Trabaj. Cometidos múltiples	1	C2	P
Klasea: Udaltzain agentea Udaltzaingoko zerbitzu agentea	1	C1	ZE	Clase. Agente del servicio de Policía Local	1	C1	Cs
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA Azpieskala: Teknikoa				ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Subescala: Técnica			
Kultur teknikari-dinamizatzailea (1) Borondatezko exzedentziza	1	A2	H(1)	Técnico-dinamizador de cultura:	1	A2	V(1)



Idiazabalgo
Udala

(1)

(1) Excedencia voluntaria

Borondatezko exzedentzia

LAN KONTRATUDUNAK LANPOSTUAREN IZENA					PERSONAL LABORAL DENOMINACION					
	Lanp. Kop.	Taldea Asimil	Egoe ra	Lanaldia		Nº Puestos	Grupo Asimil.	Situac	Jornada	
Garbitzaileak	6	E	H	%100	Traba. limpi	6	E	V	%100	
Ofizial elektrizista	1	C1	H	%100	Oficial electric	1	C1	V	%100	
Gizarte langilea	1	A2	H	%85	Asisten. social	1	A2	V	%85	
Liburutegiko ardu	1	C2	H	%100	Resp. Biblio	1	C2	V	%100	

Kontuan harturik garbitzaileei eta administrariei baldintzak okertzen zaizkiela – destino osagarria jeitsi eta berriazko osagarria jeitsi, hurrenez huren- honako hau proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

- Idiazabalgo udaleko behin-behineko langilean lanpostua konsolidatuz gero, Udalak lagile horiei osagarri personal iragankorra mantentzea, hau da, beraien baldintzak bere horretan uztea.

Kontutan harturik Lanpostuen Balorazio prozesuan 2019ko apirilean hasi zela, honako hau proposatzen zaio Ogasun Batzordeari:

- Lanpostuen ordainsarrietan aplikatuko diren igoerak, 2021eko urtarrilaren 1etik atzerapenarekin ordaintzea, eta ordainketa horiek bi urteko epean egitea.

Lanpostuen zerrendaren aldaketari dagokionez, honako hau proposatzen zaio Ogasun Batzordeari::

- Puntuaren prezioa 25,87 eurotan ezartzea
- Lanpostu bakoitzaren azterketa eta puntuaren prezioa aplikatu ondoren aurkeztu diren balioak aldatzea Lanpostuen zerrendan.

Hori horrela izanik, puntua bozkan jartzen da eta honako puntu hau eta hau da emaitza:

Aldeko botoak: 6 Iñaki Alberdi, Iñaki Arriaran, Aloña Barandiaran, Aritz Ugarte, Eunete Elio, Ioana Prados



Idiazabalgo
Udala

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 3 Ioritz Imaz , Iker Zabaleta, Andoni Gomez.

Ioritz Imazek Izal Bai-ren izenean azaltzen du beraien ustez prozesu hori beste era batean egin daitekeela, denbora gehiagorekin eta gauzak gehiago aztertuta, hain zuzen ere.

5. Idiazabalgo Udaleko gainbalioari dagokion ordenantza fiskala aldatzea onartzea, hala badagokio.

2021eko azaroaren 29an egindako Ogasun Batzordean gainbaliori dagokion ordenantza fiskalaren aldaketa onartu zen.

Puntua bozkan jartzen da Osoko Bilkuraren onarpenerako:

AHO BATEZ ONARTZEN da:

LEHENENGOA. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 30 eguneko epea eskaintzea alegazioak egin ditzaten.

BIGARRENA. Alegaziorik izan ezean, erabakia behin betikotzat joko da.

Puntua bozkan jartzen dut eta AHO BATEZ honako hau ONARTZEN da:

LEHENENGOA. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea hasierako onarpena 30 egun balioduneko epean interesdunek alegazioak egin ditzaten.

BIGARRENA. Alegaziorik egon ezean erabakia behin betikotzat joko da.

6. Migrazioarako Euskal Itun Sozialean atxikimendua onartzea, hala badagokio.

“JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA”

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo-eskatzailleek, Bidaiderik Gabeko Adingabe eta Gazte Atzerritarrek, iragaitzazko migratzaileek edo zaurgarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonetikiko erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo



Idiazabalgo Udala

bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeko aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da *besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna*. Migrazioari dagokienez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamaturtako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredia eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabea. Sintoma kezkarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migraziorako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharriari dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide- prozesuaren parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK. Migraziorako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu.

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri euskal gizartea defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharriena. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharriari erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkunderari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.



Idiazabalgo
Udala

ZEHARKAKO AUKERAK. Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

I. Bizikidetzeta. Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuiatu egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.



Idiazabalgo Udala

II. Giza Eskubiak. Oinarrizko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.

III. Zehakakotasuna. Euskal administrazioen sektore-politikan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna...) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.

IV. Kohesioa. Irmotasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarrizko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

V. Hezkuntza. Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

VI. Tokiko esparrua. Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzaren hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehenetsuneko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

VII. Berdintasuna. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzaren eraikitzearen oinarrizko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politikan eta gizarte babeseko politikan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

VIII. Hizkuntzak. Gizarte hartzailen hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarriketa eta lankidetzaren iraunkorreko mekanismoak ezarri, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX. Lankidetzaren. Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehenetsua sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzaren. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz, erabateko babes ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenera, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzaren aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzaren leialdean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.

2. Irmotasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektorala lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.



Idiazabalgo Udala

3. Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrianak.

4. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europan, estatuan eta Euskadin.

5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarriz emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketen biktimengan.

6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzak migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.

7. Bidaidetik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaidetik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharrei, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.

8. Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.

9. Prebentziozko esku-hartzea. Lankidetzaproiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.

10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkertasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuatuta.

Puntua bozkan jartzen da eta AHO BATEZ ONARTZEN DA 6. Puntua.

7. Azaroak 25eko adierazpena onartzea, hala badagokio.

AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPEN EREDUA, 2021EKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA

Idiazabalgo Udalak emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko egunak biltzen dituen salaketekin bat egin eta honako adierazpena egiten du.



Idiazabalgo Udala

Emakumeen aurkako indarkeria larderia edo intimidaziorako tresna indartsua da, emakumeei zuzendua, indarrean dauden genero-arauak desfaiatu eta eralda ez ditzaten. Mehatxurako tresna hori zuzenean emakumeengan erabiltzen da, baina baita haien gertuko pertsona maitatuenengan ere, min handiagoa sortzeko modu gisa.

Indarkeria bikarioa esaten zaio emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion biolentzia motari, zeinak ankerkeria-maila gorena lortzen duen haien erailketarekin (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.).

Azken lege-aldaketek dagoeneko jasotzen dute figura hori, biktima adingabeak babesteko neurriak sortzeari eta hedatzeari dagokionez. Hala ere, oraindik ere beharrezkoa da genero-indarkeria ukatzen duten, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxien duten eta indarkeria horri aurre egiteko tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoen eta jarreraren aurka ohartaraztea.

Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki burutzeko modu horren aurrean, bai eta emakumeak kontrolatzeko, jazartzeko eta kaltetzeko modu guztien aurrean ere, euskal erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta ez direla gertakari isolatuak, egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotela, eta egoera horri ikuspegi feministatik heldu behar zaiola.

Horregatik, Idiazabalgo Udalak honako konpromiso hauek hartu nahi ditu:

- Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.



Idiazabalgo Udala

- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak adostea.
- Neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea, eta laguntza integrala ematen laguntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetzeta-maila edozein dela ere.
- Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkako, herri-itun bat lortzeko, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat lortzeko.

Herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, SATEVI (900 840 111) eta ZEUK ESAN (116 111) telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuaren bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta Idiazabalen deitutako mobilizazioarekin eta ekintzekin:

- Elkarretaratzea: Azaroak 25, 18:00etan plazan.
- Zahra Kontzertua: Azaroak 26, 18:30 plazan.

Puntua bozkan jartzen da eta AHO BATEZ ONARTZEN da Azaroak 25eko adierazpena.

8. Euskararen Nazioarteko Egunerako Adierazpena onartzea, hala badagokio.

Hau da adierazpena:

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera



Idiazabalgo Udala

ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaugarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikook eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzatza publiko-pribatuaren eskutik lan egiten

badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapean errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formalekin landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formalekin lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzaren esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atsedean eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarritz eta eredugarritasuna erakutsiz.



Idiazabalgo Udala

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hitzun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak...). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoia aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta.

Puntua bozkan jartzen da eta AHO BATEZ ONARTZEN da Euskararen egunerako adierazpena.

9. Interes publiko goreneko erregulazio berriari buruzko mozioa onartzea, hala badagokio.

Hau da EH Bilduk aurkeztu duen mozioa:

INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZKO MOZIOA

2021eko azaroaren 5ean, Eusko Legebiltzarreko Jasangarritasunaren, Ingurumenaren eta Ingurune Naturalaren Batzordean, talde parlamentarioek Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketak antolatzeke ponentzia eztabaidatzen ari zela, EAJ eta PSEko talde parlamentarioek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatzea proposatu zuten 61. zuzenketan (integratutako dokumentuko 227. zenbakikoa).

Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetariko baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko



Idiazabalgo Udala

ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zabortegeiak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...).

Neurri horrek kolokan jarriko luke indarrean dagoen lurralde antolamenduaren berme-sistema, eta eragin handia izango luke udalen autonomiaren printzipioan.

IPGP Interes Publiko Goreneko Proiektu gisako adierazpena, proposatzen den moduan, ustezko ingurumeneko hobekuntzak ekar litzakeen edozein proiekturen aurrean benetako hobekuntzak izan litezkeenak edo erabaki politiko hutsak izan litezkeenak, ustezko hobekuntza horiek erabateko hierarkia izango lukete, eta egungo lurralde antolamenduko tresnak saihestuko lituzke, hala nola HAPO, LPP, LPS edo LAG; hala gertatuz gero, orain IPGPera egokitu beharko lirarteke, eta beharrezkoak diren barne-aldaketak egin ere bai.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitzaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Udal-autonomiaren printzipioa babesteko eta printzipio honek lurralde antolamendurako eta ingurumena babesteko tresnekin duen lotura ere babesteko, bidezkoa da ondoko proposamena egitea.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Idiazabalgo Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

1. Idiazabalgo Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.
2. Eusko Legebiltzarrari eskatzea errespetatu dezala udal-autonomiaren printzipioa eta lurralde-antolamenduko eskumenak garatzeko eta gauzatzeko duen ahalmena, eskumen horiek egungo araudi erregulatzailaren esparruan ezarrita dauden moduan.
3. Idiazabalgo Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.



Idiazabalgo Udala

4. Eusko Legebiltzarrari eskatzea lurraldearen antolamendurako eta ingurumena babesteko sistemaren egungo bermeak urra ditzakeen "interes publiko goreneko inolako proiekturik" ez dezala ezarri.

5. Idiazabalgo Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrerara eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du.

Puntua bozkan jartzen dute eta hau da emaitza:

Aldeko botoak: 6 Iñaki Alberdi, Iñaki Arriaran, Aloña Barandiaran, Eunat Elio, Aritz Ugarte, Ioana Prados

Kontrako botoak: 3 Ioritz Imaz, Iker Zabaleta, Andoni Gomez

Abstentzioa: 0

Ondorioz, Interes publiko goreneko erregulazio berriari buruzko mozioa ONARTZEN da.

10.2022. urterako taxi zerbitzuaren tarifak onartzea, hala badagokio.

2022ko Hiri barruko tarifa proposamena

Tarifa 1			Tarifa 2		
Abisaria	Egindako km	Itxaron ordua	Abisaria	Egindako km	Itxaron ordua
3,7433	1,1719	22,3832	3,7433	1,869	35,179

Puntua bozkan jartzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN dira 2022. Urterako taxi zerbitzuaren tarifak.

11. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatera atxikitzea onartzea, hala badagokio.

Gaia: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatera atxikitzea

UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) Euskal autonomi erkidegoko hainbat udalerririk osatzen dute.

Mankomunitatearen helburu nagusia euskara zerbitzua eskaintzea da bertako partaide diren udal administrazioen barne-jarduera zein udalerrietako Gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren Hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Idiazabalgo Udala mankomunitateko kide egitea proposatzen da.

Aplikatu beharreko legedia

Apirilak 7ko 2/2016 Euskadiko Erakunde Publikoen Legea.



Idiazabalgo Udala

Apirilak 2ko Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Legea

Gaiaren azterketa

Apirilak 7ko 2/2016 Euskadiko Erakunde Publikoaren 7. Artikuluak honela

dio: “ Euskararen arloan aitortutako eskumenak gauzatzeko, Toki-erakundeek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, eta mankomunitateak, Patzuergoak, konsortzioak edo beste udalaz gaindiko erakundeekin , eta baita ere beste erakunde publiko eta pribatuekin batera jarduteko moduak ezartzeko.

Mankomunitateen osaketari buruz, honako hau dio Euskadiko Erakunde Publikoaren 103. Artikuluak:

103. art Lurralde historiko bat baino gehiagokoak eta autonomia-erkidego desberdinetakoak diren udalerrien mankomunitateak.

1.- Lurralde historiko bat baino gehiagokoak diren udalerrien mankomunitateek artikulu honetan xedatutakoa eta aplikatzekoak zaizkien lege honetako beste xedapen batzuk bete beharko dituzte.

2.- Mankomunitateak eratzeko eta haien estatutuak egin eta onartzeko prozedura honako hau izango da:

a) Estatutuen aurreproiektua egitea, legezketasuna, egokitasuna eta egokitasuna egiaztatzen duten azterlan, txosten eta gainerako aurrekariekin, mankomunitatea sustatzen duten udalerrri guztietako zinegotziek osatutako batzorde tekniko baten bidez. Batzorde hori udaletako osoko bilkurek izendatuko dute. Prozedura kudeatzeko eskumena horietako bati emango zaio, eta hark izapidetuko du guztien ordezkaritzan, eta jatorrizko dokumentuak zainduko ditu.

b) Estatutuen proiektua udalerrri sustatzaile guztietako alkateek eta zinegotziek osatutako batzar batek onartzea. Batzar horren funtzionamendua udal sustatzaileen osoko bilkurek zehaztuko dute, eta, halakorik ezean, kide anitzeko organoak erregulatzeko oinarritzko arauak. c) Estatutuen proiektua jendaurrean jarriko da hogeit egunez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den iragarki baten bidez. Iragarki hori prozedura kudeatzen duen udalak bidaliko du, eta, bertan, mandatu bakoitzak estatutuen proiektua onartzeko erabakia hartu izanaren ziurtagiria jasoko da, bai eta foru aldundien behin betiko txostena ere.

3.- Mankomunitatea eratu ondoren, nahi duten udalerrriak atxiki ahal izango dira mankomunitatera, estatutuetan zehaztutako prozedurari jarraituz.

Nolanahi ere, mankomunitatearen atxikipena eta estatutuak onartu beharko dira atxiki nahi den udalaren osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, eta jendaurreko informazioaren izapidea eta foru-aldundien txostena egin, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta aldaketa Toki Erakundearen Erregistroan inskribatu beharko da, aurreko paragrafoan ezarritako moduan.

4.- Estatutuek, gutxienez, honako puntu hauek jaso beharko dituzte:

a) Mankomunitatearen izena, egoitza eta Mankomunitatea osatzen duten udalerrien zerrenda. b) Xedeak eta eskumenak zehaztea.

c) Gobernu- eta administrazio-organoen, bai eta kideen osaera, izendapen-modua eta kargu-uztea. cve: BOE-A-2016-4171. Hemen egiaztatu daiteke: <http://www.boe.es> BOLEDETÍN OFICIAL 105 Astelehena, 2016ko maiatzaren 2a l. 29341

d) Gobernu-organoen eta administrazio-kudeaketako organoen, eta, hala badagokio, gerentziaren funtzionamendu-arauak.



Idiazabalgo Udala

- e) Kide diren udalerrien ekarpenak eta erakundearen beraren gainerako baliabide ekonomikoak.
- f) Mankomunitatearen iraupena.
- g) Estatutuak aldatzeko prozedura. lege honetan aurreikusitakoaren arabera.
- h) Udalerrriak sartzeko eta bereizteko prozedura, eta udalerrien desegite-prozedurak eta mandatuak. 5.- Mankomunitateek toki-araubidearen oinarrizko legeriak udalerriei esleitzen dizkien ahal guztiak izango dituzte, baldin eta beren estatutuetan hala jasotzen badira, edo, aurreikuspen hori ez badago, beren helburua betetzeko behar dituzten eta indarrean dagoen araudiak udalerriei aitortzen dizkien ahal guztiak baliatu ahal izango dituzte, ahal horietako bakoitzari aplikatu beharreko legeriaren arabera.
- 6.- Mankomunitateek jabetza kentzeko ahala beren gain hartu ez dutenean, okupatu beharreko ondasunak kokatuta dauden udalerrriak baliatuko du ahal hori, betiere mankomunitatearen eskariz eta onurarako; foru-aldundiak, baldin eta lurralde historiko bereko udalerrri batean baino gehiagotan badaude; edo autonomia-erkidegoko administrazioak, baldin eta lurralde desberdinetako udalerrietan badaude.
- 7.- Mankomunitatearen gobernu-organoak, horien eskurantzak eta funtzionamendu-araubidea zehazterakoan toki-autonomiari zor zaion errespetuari kalterik egin gabe, mankomunitatearen estatutuek bermatuko dute ordezkari-organoren osaerak kontrol-eginkizunak bere gain hartzea eta udalerrri guztietako kide hautetsien benetako presentzia bermatzea, eta bakar batek ere ezin izango du gehiengo osoa izan. Udalen ordezkari-organoko ordezkariak udalerrri bakoitzak izendatuko ditu, azken udal-hauteskundeetan lortutako emaitzekiko modu proportzionalean.
- 8.- Artikulu honetan araututako mankomunitateak desegiteko espedienteak, toki-araubidearen oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera, mankomunitatea eratzeke eta mankomunitatearen estatutuak onartzeko eskatzen diren arau beretara egokituko dira. 9. Autonomia Erkidegoko udalerriek, toki-araubidearen oinarrizko legeriarekin bat etorritik, beste autonomia-erkidego batzuetako udalerriekin mankomunitateetan integratu ahal izango dute, lege honetan ezarritako baldintzetan eta, era berean, gai honi buruz beste autonomia-erkidego ukitu bateko edo batzuetako legeriak zehazten duenarekin bat etorritik. Kasu horretan, artikulu honen hirugarren paragrafoan aurreikusitako aurretiazko txostenaren ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean toki-araubidearen arloko eskumena duen organoak egingo du.
- UEMAk aurkeztutako Estatutuek legean ezarritako baldintzak betetzen dituzte. Behin-behineko akordioa gehiago osoz hartu behar da, eta Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 eguneko epean jendaurrean jarri eta alegaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat joko da.

Idiazabalen, 2021eko azaroaren 15ean.

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Aldeko botoak: 6 Iñaki Alberdi, Iñaki Arriaran, Eunate Elio, Ioana Prados, Aritz Ugarte, Aloña Barandiaran.

Kontrako botoak: 0

+



Idiazabalgo
Udala

Abstentzioa: 3 Ioritz Imaz, Iker Zabaleta, Andoni Gomez

Ondorioz, Idiazabalgo Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatera atxikitzea ONARTZEN da.

12. Galdera eskaerak.

Ez dago

Behin puntu honetara iritsita, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 18:55an, eta akta hau egin dut bertan erabakitakoa jaso dadin, eta beharrezko efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2021eko abenduaren 14an.

O.I
ALKATEAK
Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Leire Ucin Soraluze